

Manuel de Larramendi, gizona

Euskaldunon Egunkaria, 1990-12-14: 23.

Aita Larramendi, Andoaingo 'Garagorri' baserrian jaio zen, eta 1690ko abenduaren 25ean bataiatua.

Eguberri egunean.

Biharamunean bertan (garai hartan premia handia izaten zen arimatxo gal ez zedin) D. Juan de Berrozpek bataiatu zuen Manuel izenarekin; aita, Domingo de Garagorri zen, eta ama, Manuela de Larramendi.

Beraz, Manuel (noizbait Emmanuel sinatu du) Garagorri Larramendi dagokio izendeitura osoz.

Hala ere, bataio agiri honetan badaude bi ohar:

1. Jesulagun egin zenean, bere deitura 'Garagorri'tik 'Larramendi'ra aldatu zuela.

2. Beste ohar bat, eta hau 1756ko apirilaren 12an egina, 66 urte zituela: Orriaren oinean agertzen denaren arabera eman dizkigu ikertzaile zehatz den Ignacio Tellechea Idigoras jaunak bere bilduma kritikoaren bitartez xehetasun batzu:

Larramendiren bataio oharpena dakarren liburua Parrokiako 4. da (f. 32 v), baina hauxe da Parrokiako artxiboan aurkitzen den lehenengoa (1684-1726 bitartekoak); gure herrian paper asko galdu baita, garai hartako sute eta zabarkeria direla kausa; agertzen dira, bai, 3.aren orrialde batzu ere 1684-1726 eta 1681 urtetako partidekin.

Bestalde, ez da ageri Aita Manuelen gurasoen ezkontza azaldu behar lukeen liburua.

Ikertzaileak aztertu du bataioei dagokiena, eta hor ageri dira honen gurasoengandik jaiotako bi, gutxienez: Martin (1689ko urriak 24) eta Aita Manuel bera. Gero, Domingo Garagorri alargundu egin zen eta berriz ezkondu; bigarren ezkontzatik jaio ziren: Maria Manuela (1703ko apirilak 9), Juan Bautista (1706ko ekainak 22), Maria (1708ko apirilak 2), Maria Joseba (1710ko maiatzak 14), Jeronimo (1712ko irailak 30), Maria Joseba (1716ko apirilak 13) eta Simon (1720ko maiatzak 4).

Ikertzaileak ongi dioen bezala, bigarren ezkontzak eragingo zion Aita Manueli bere deitura 'Garagorri'tik amaren 'Larramendi'ra aldatzea, gero senide batzurengana Hernanira biltzea eta ondoren Bilboko jesulagunen ikastetxera sartzea.

Eta honegatixe agertzen da Bilboko ikastetxean Jesusen Lagundian sarterakoan Hernaniko, edo hemendik etorria bezala, 1707ko azaroaren 6an, 17 urte zituela.

Lagundian profesa egin zuen, 36 urtekin, 1726an.

Baina gizonari dagokionez, Aita Manuel 1766an hil eta gero idatzi zuen 'Elogio necrológico' (1766) biografo eta panegiristak dioenez: Andoaingo 'Garagorri' baserrian jaio zen; gizon handia zen gorputz ta arimaz, eta baita gainontzeko bere kualitate guztiei dagokionez ere; kemen handikoa, zentzuak argi zituen beti. Hirurogei eta lau urterekin xuxen eta eskuan dardararik gabe idazten zuen. Oroimen handikoa zen, bihotza handia zuen bezala; "entzun nion azken urtetan", dio, "bi su-burdin eskuetan zituela, ez zela bera halako bi gizonen aurka borrokatzeko beldur". Eta jakintsua et bizia bezain apala zen;

bestalde "ez nion inoiz bestegandik gaizkiesaka entzun; haserretzen zenean ere mingaina berea zuen".

Lagunen bat zen noski hauek denak idatziak utzi zituen.

Izan baitzuen, bestalde, aurka oso gogor eraso eta bere aurka marmarrean aritu zen franko ere.

Bestela ez zen gizona izango.